

# EUSKERAZALEAK

## EUSKEREA ABERASTU

"EDER" itzaz esaldi politak egiten dira:

EDER = hermoso, bello, guapo (Begientzat).

EDER = aprecio, agrado, estima... (Biotzarentzat).

Jaietara etortearaz erritarren *ederra* irabazi dozu =...has ganado el *aprecio*...

Zure *ederragatik* egin dot ori = ...lo he hecho por agradarte...

Zu ez zara *ederra* emen = ...no eres estimado...

Mendia *ederrago jat* ondartzta baiño = ...me gusta mds...

Baserri zuriak bai dirala eder bedar orlegia artean!

Baserri zuriak bai eder emoten dabela bedar orlegi artean!

Lora orrek bazter orretan *ez dau eder egiten* = ...no luce...

Liburu au *ez jat eder* = ...no me gusta...

Guzurra esatea *ez da eder* —• ...no estd bien.

Ederra egin deutso = Le ha jugado una mala partida.

Ederra egin dogu! = Buena la hemos hecho!

Ederrak sakatu dozuz = Que exagerado eres.

Ederra sartu deutsue = Como te han engañado.

Zozo ederra ta mutil ori! = Que tonto es! Valiente ton-to!

Ederrak emon ditu, baita artu be = ha repartido buenas, pero tambien las ha recibido.

Gizon arroak ez deutso ifiori *eder egiten* = a nadie le agrada...

EDERTU = hermosear, embellecer, adornar, decorar...

Danok dakizu gure *burua edertzen* = ...disculparnos...

EDERRETSI = tenerlo por hermoso, admirar, apreciar...

Norbere *burua ederretsi* = ...vanagloriarse...

EDERGAILLU = embellecedor.

EDERGARRI = adorno, decoracion.

EDERZALE = artista.

EDERTI = arte.

EDERTO = EDERKI = hermosamenete, bien.

### ESAERA-ZARRAK

Beleari eder, bere kantua.

Bai eder, astoa polainakaz! (Arroa dala esateko).

Galbai ederrenak be urari ezin eutsi.

GOIKOETXEA INAKI

### LOGURA

Ze astun dodan neure gorputz au!

Zartzaroaren nekea ete?

Pixu gordin onek makurtzen nau,

Orma zaar, arrakalaz bete.

Kemen-arriak ditut lur jota,  
untzak jan daroastaz ametsak,  
gogo-gelan milla pipi mota,  
kolkoan itxaro erre autsak.

Neure izatearen ertzetik  
kanpoaldean ez ete nago,  
goldeskua artzeko indar barik,  
neuretik gero ta urrunago?

Aaztutze guztien atari,  
ba dot bai nik sarritan logura,  
bein zuloratzeko joanari  
ene etsipen aroen kezkura.

### GU PEKATARIOK

Erneko ete jaku errian,  
iñoi, bake zurien ogirik,  
ala, gorrotoaren gerrian  
beti izango erio zintzilik?

Izu-labetan poza errea,  
azurgiltzetan kiribildua  
dabilkigu ikara arrea,  
arri loturetatik sartua.

Bor-bor jabilku gogorkeria  
odol gorrien zirlilluetan  
eta akarren zakar goria  
kanporatzen jaku izerditan.

Aztu egin jaku betirako  
poza ezetu eban euria?  
bake landarak ureztutako  
maitasun lañoen ixuria?

Zenbat zulo t'arrakala dogu!  
Gu bai erri madarikatua.  
Arri mamiñetan dagerkigu  
saitasun ezaren pekatua.

A. BIDAGUREN